

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fermin Muñoz Etxabeguren

*Donostia,
Gipuzkoa
(1922)*

Aurkibidea



Biografia



Larramendi kalean jaio zen, Donostiako erdigunean. Aita eibartarra zuen eta ama Pasai Donibanekoa. Bi senide ziren, anai-arrebak. Eskola publikoan ibili zen lehenengo eta ondoren San Antonio kolegioan, 15 urte bete arte. Banketxe batean hasi zen lanean laster, laguntzaile gisa hasieran eta arduradun moduan geroago. Artea da, baina, benetan asebetetzen duena. Irakurtzeko eta idazteko grina du aspalditik. Hogeitabat liburu idatzi ditu Donostiako historiari buruz; oraintxe bertan beste bat prestatzen dihardu. Musikazalea ere bada: besteak beste, biolina eta txistua jotzen ikasi zuen. [Maria Jesus Otaegi](#) rekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-071

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-05
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Eskola publikoan, gaztelaniaz

- **Erref:** DON-071/003
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Elizara Buen Pastorrera joaten ziren. Eskolara, berriz, etxe aurreko eskola publikora joaten ziren. Mutilak bakarrik joaten ziren eskola hartara, eta dena gaztelaniaz egin behar izaten zuten. Kanean giro erdalduna zen nagusi, guraso

euskaldunak zituztenen artean ere, Ferminek dio bere etxean soilik mantendu zela euskara, gurasoek etxean beti euskaraz egin ohi zioten.

2. Kolejiotik bankura lanera

- **Erref:** DON-071/005
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Etxe aurreko eskolan egin zituen lehen urteak, gerora Urdaneta kaleko San Antonio kolejoan hasi zen ikasten. Mutiko euskaldun asko elkartu ziren bertan. Gramatika, matematika... ikasten zuten, kolejoak zenbait bankurekin harreman estua zuen eta bankuan lanean hasi zenean ere, ordea, bere kontura ikasten jarraitu zuen Ferminek, gustuko zuen ikastea.</p>

3. Banco Popularreko kontuak eramaten

- **Erref:** DON-071/006
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerora Banco Popular delakoan hasi zen lanean Fermin. Administrazio kontuak zertxobait kontrolatzen zituenez, berehala hasi zen horretan lanean.

4. Aitona mikeletea eta erdi bertsolaria

- **Erref:** DON-071/007
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Arreba bat zuen. Etxean gurasoak, izeba eta osaba, eta arrebarekin batera bizi zen. Aitona mikeletea zen, eta erdi bertsolaria, ez zuen bera ezagutzeko aukerarik izan. Amona bai, amona ezagutu zuen Ferminek.

5. Ama eta izebak etxeko lanak, aita seguroak

- **Erref:** DON-071/008
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:

Ama eta izeba arduratzen ziren etxeko lanez. Aitak aseguruak egiten zituen, herriz herri ibiltzen zen, autobusez edo trenez mugitzen zen alde batetik bestera.

6. Harrapaketan eta korrika

- **Erref:** DON-071/009
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:16:52. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ez zuten ohiturarik kanikekin edo pilotan jolasteko, harrapaketan edo lasterketak egiten gehiago aritzen ziren.

7. Arteak gustuko, batez ere musika

- **Erref:** DON-071/010
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Lanean hasi orduko, 15 urterekin, solfeoa eta bibolina jotzen ikasteari ekin zion. Arteak gustuko zuen; pintura, musika eta literatura. Gehienbat musikaren bidetik jo zuen.

8. Aste osoa lanean, igandeetan mezatara eta mendira

- **Erref:** DON-071/011
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Garai hartan ez zegoen "Sábado Inglés" delakorik. Aste osoa jo ta ke lanean eman ondoren, igandeak beretzat hartzen zituen, goizean mezatara, eta arratsaldean mendira. Ez zen taberna eta erromeria zalea, txistua jotzen ere bazekien, noizbehinka diputazioan jo izan ohi zuen.

9. Frankistek Donostia hartzean, lehenengo Eibarrera, eta handik Oñatira egin zuten alde

- **Erref:** DON-071/014
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:27:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Frankistak Donostiara iritsi zirenean, jendeak Bilbora egin zuen alde, eta beraiek Eibarrera jo zuten, kotxez. Eibartik Oñatira mugitu ziren, bertako ostatu batean pasa zuten denboraldi bat. Urak baretu zirenean itzuli ziren Donostiara.

10. Borrokak tropa frankisten eta CNTko gazteen artean

- **Erref:** DON-071/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:27:33. **Bukatu:** 00:30:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Frankistak Amarako geltokitik sartu ziren Donostiara. Ferminen familia bizi zen kalean bertan zegoen CNTren egoitza. Balkoitik ikusten zituen enfrentamentuak Ferminen. Behin CNTko gazte bat etxean sartu, eta trapu gorri bat zintzilikatu zien balkoian. Beldurra zen nagusi etxean, baina ez zen ezer gertatu.

11. Eibarren zatiketa baino batasun handiagoa

- **Erref:** DON-071/016
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:30:02. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Politika

Laburpena:

Ez zuten ohiturarik batzokira joateko. Gerra aurretik, Eibarren politikoki bando desberdinetan kokatzen zen jendea oso ondo konpontzen zen elkarrekin.

12. Gerrak euskal giroa zapaldu arren, sustraia bizirik

- **Erref:** DON-071/018
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gerrak berak ez zuen asko iraun Donostian, bai ordea gerrak utzitako ondorioek. Euskal giroa zapaldu zuten, baina sustraia bertan geratu zen; berak eta beste gazte batzuek irratia martxan jarri zuten etxe batetik, geroxeago hasi zen ikastolen mugimendua ere.

13. Gazte batzuen artean irratia martxan

- **Erref:** DON-071/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:34:56. **Bukatu:** 00:37:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ez du oso ondo gogoratzen nola jarri zuten irratia martxan. Kutxakoen laguntzaz lortu zuten lokala, etxe bat, eta bertatik egiten zituzten saioak, dena euskaraz; antzerkiak, elkarriketak, eta abar.

14. Donostian, etorkinak ere donostiar

- **Erref:** DON-071/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:39:47. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Garai batean Larramendi kalean normandoz, latinez, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz entzun zitekeen jendea. Gerora txinoz, japonieraz... entzuten da, baina horiek ere donostiar sentitzen dira. Sustraia ez da galdu.

15. Donostiako euskara: nahaspila

- **Erref:** DON-071/022
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gaskoiak Donostiara heltzean Urgullen egin zuten tokia. Zaila da Donostiako euskara nolakoa den definitzea, oso nahaspilatua dela dio; nafarrak, baserritar gipuzkoarrak, militarrek, mugatik gertu, komertzioak... mugimendu handia zegoen bertan, horrek nahasketa handia ekarri zuen. Igeldoko euskara ere ez du uste oso bestelako denik, Orio aldera joz gero, aldaketak nabariagoak dira.

16. Easo inguruan feriak eta zirkoak

- **Erref:** DON-071/023
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:49:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Donostia asko aldatu da ordutik hona. Easo kale ingurua oso zabala zen, bertan jolasten zuten, feriak ere jartzen zituzten, zirkoak... San Juanetan, batez ere. Donostiako jairik garrantzitsuenak San Sebastian Eguna eta "kaldereroak" izaten ziren.</p>

17. Erreginaren etorrerak Donostia eraldatu zuen

- **Erref:** DON-071/025
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:52:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Isabel erreginaren gaixotasuna medio, itsasoko urak on egingo ziola-eta Donostia aukeratu zuen sendatzeko lekutzat. Erregina ez zen bakarrik etorri, noski, eta horrek Donostiako herri izaera erabat aldatu zuen; jaietan suzko zezena kendu zuten... Donostia dotore eta apaina nahi zuten, eta hargatik egin zituzten Miramar jauregia eta inguruko etxeak, Aieteko jauregia. Gerora Francok bisitatu zituen lekuok.

18. Bainujantziak eta "baineroak"

- **Erref:** DON-071/026
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:52:54. **Bukatu:** 00:55:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzan, emakumeak ere bainujantziarekin egon ohi ziren, baina bainujantzi luzeak ziren, gorputza ondo tapatzeko modukoak. Atzeritarrei edo

igerian ondo ez zekitenei uretara laguntzeko, "baineroak" egoten ziren hondartzan.

19. Zezen plazara baino, mendira nahiago

- **Erref:** DON-071/028
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:56:28. **Bukatu:** 00:58:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

<p>Medikua etxez etxe ibili ohi zen. Ospitalea bazegoen, baita zezen plaza ere. Aitarekin joaten zen batzuetan zezen plazara, ez zitzaion gehiegi gustatzen ordea, mendira joatea atsegin zuen.</p>

20. Elvira Zipitria, lagun eta irakaslea

- **Erref:** DON-071/030
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:58:58. **Bukatu:** 01:02:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Mendian ezagutu zuen bere emaztea, Aizkorrin, Urbia inguruan. Gerora, biak Elvira Zipitriaren etxera joaten ziren euskaraz alfabetatzera; oso harreman ona izan zuen Elvirarekin. Elvira Zipitriaren etxea Donostiako lehenengo unibertsitatea izan zela dio Ferminek.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com